3. Bideoaren erreprodukzioa eteteko, sakatu .



1


Sakatu  pantaila blokeatzeko. Pantaila blokeatuta dagoela, ezingo duzu eragiketarik egin bideoak erreproduzitzeko interfazean.


2

- Lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera bideoa aurreratzeko edo bideoa berriro erreproduzitzeko.
- Lerratu hatza gora edo behera, pantailaren ezkerreko izkinan, distira doitzeko.
- Lerratu hatza gora edo behera, pantailaren eskuineko izkinan, bolumena doitzeko.

# Sare eta erabilera partekatua


## Datu mugikorrak aktibatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  eta, ondoren, **Todos**.
2. **Redes inalámbricas y redes** atalean, sakatu **Más**.
3. Sakatu **Redes móviles**.
4. Sakatu **Datos móviles** telefonoko datu mugikorren zerbitzua gaitzeko.

 Ez badaukazu Internetera sartu beharrik, desaktibatu datu-zerbitzua, bateria aurrezteko eta datu mugikorren kontsumoa murrizteko.



## WiFi sarea

### WiFi sare batera konektatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu **Wi-Fi**.
3. Hautatu WiFi hautagailua, funtzio hori gaitzeko. Telefonoak erabilgarri WiFi sareen zerrenda bilatuko eta erakutsiko du.
4. Sakatu zein WiFi saretara konektatu nahi duzun.
  - Baldin eta WiFi sare irekia bada, zuzenean konektatuko da.
  - WiFi sarea zifratua baldin badago, idatzi pasahitza, hala eskatzen zaizunean, eta sakatu **Establecer conexión**.

### WiFi sare batera konektatzea WPS funtzioaren bidez

WiFi Konfigurazio Babestua funtzioaren bidez (WPS), WiFi sare batera konekta zaitezke bizkor-bizkor. Sakatu WPS botoia edo idatzi PINa telefonoa WPS onartzen duen WiFi router bati konektatzeko.


1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu **Wi-Fi**.
3. Hautatu WiFi hautagailua, funtzio hori gaitzeko.
4. Sakatu  > **Ajustes avanzados**. Gero, egin hau:

- Sakatu **Conexión WPS**, eta sakatu WPS botoia WiFi routerrean.
- Sakatu **Conexión WPS por PIN** eta sartu routerrean telefonoan sortutako PINa.

## Telefonoko datu mugikorren konexioaren erabilera partekatua

### WiFi eremua

Beste gailu batzuentzako WiFi eremu gisa ere funtzionatzen du telefonoak, datu mugikorren konexioaren erabilera partekatuaren bitartez.


1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, **Todos** fitxa.
2. **Redes inalámbricas y redes** atalean, sakatu **Más**.
3. Sakatu **Anclaje y zona Wi-Fi**.
4. Sakatu **Zona Wi-Fi portátil**, WiFi eremua aktibatzeko.
5. Sakatu **Configurar zona Wi-Fi**.
6. Konfiguratu WiFi eremuaren izena, zifratze-modua eta pasahitza. Ondoren, sakatu **Guardar**.



WPA2PSK zifratze-modua erabiltzea gomendatzen da, WiFi sarea hobeto babesteko.

### Sarera ainguratzea USB bidez.

Telefonoko datu-konexioa ordenagailuarekin parteka daiteke, USB kablearen bidez. Sarera USB bidez ainguratzearen funtzioa erabiltzeko litekeena da telefonoaren kontrolagailuak ordenagailuan instalatu edo sare-konexio bat ezarri behar izatea, ordenagailuaren sistema eragilearen arabera.

1. Erabili USB kablea telefonoa ordenagailuari konektatzeko.
2. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, **Todos** fitxa.
3. **Redes inalámbricas y redes** atalean, sakatu **Más**.
4. Sakatu **Anclaje y zona Wi-Fi**.


5. Sakatu **Anclaje vía USB**, datu mugikorren konexioa partekatzeko.



Sarera USB bidez ainguratzeko funtzioa ezin da erabili gailua biltegitratzeko USB modu gisa funtzionatzen ari den bitartean.



## Sarera ainguratzea Bluetooth bidez.

Beste gailu batzuek telefonoaren datu mugikorren konexioa parteka dezakete Bluetooth bidez.

1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, **Todos** fitxa.
2. **Redes inalámbricas y redes** atalean, sakatu Más.
3. Sakatu **Anclaje y zona Wi-Fi**.
4. Sakatu **Anclaje por Bluetooth**, datu mugikorren konexioa partekatzeko.


## Datuak bluetooth bidez transferitzea

### Bluetooth funtzioa aktibatzea, eta telefonoa eta Bluetootha darabilen gailu bat lotzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu Bluetooth.
3. Sakatu **Activar Bluetooth** Bluetooth-a aktibatzeko. Telefonoak ikusgai dauden beste Bluetooth gailuak bilatzen ditu automatikoki, eta bistaratu egiten ditu.
4. Sakatu gailua, eta segi pantailako jarraibideei telefonoa gailu horrekin lotzeko. Bi gailu askatzeko, sakatu  lotutako gailuaren ondoan, eta sakatu **Desenlazar**.

### Telefonoaren izena aldatzea

Lehenespenez, Bluetooth funtzioa aktibatzen denean, telefonoaren izena telefonoaren modelo da. Izena alda dezakezu, eta pertsonalago bat, errazago aurkitzeko modukoa, jarri.

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todas** aukeran, sakatu **Bluetooth**.

3. Sakatu **Nombre del dispositivo**.
4. Aldatu telefonoaren izena, eta sakatu **Aceptar**.

## Fitxategien erabilera partekatua, bluetooth bidez

Beste Bluetooth gailu batekin datuak trukatzeko, aktibatu Bluetooth funtzioa bi gailuetan, eta ziurtatu bistan zaudela.

Luze sakatu bidali nahi duzun fitxategia, eta sakatu **Compartir > Bluetooth** pantailan agertzen den leihoan. Telefonoak ikusgai dauden beste gailuak bilatzen ditu automatikoki, eta bistaratu egiten ditu. Hautatu gailu bat fitxategia jasotzeko.

## Fitxategiak jasotzea bluetooth bidez

Telefonoak fitxategiak transferitzeko eskaera bat jasotzen duenean, pantailan **Transferencia de archivos** elkarrizketa-koadroa bistaratuko da. Sakatu **Aceptar**, fitxategia jasotzen hasteko. Ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu **Notificaciones** fitxategiaren transferentzia-prozesua ikusteko. Lehenespenez, jasotako fitxategiak **bluetooth** karpetan gordetzen dira, **Archivos** atalean.

## Datuak Wi-Fi Directo bidez transferitzea

Wi-Fi Directo-ek aukera ematen du bi gailu konektatzeko eta haien artean datuak transmititzeko, sarbide-punturik erabili beharrik gabe.

## Bi gailu konektatzea WiFi Directo erabiliz



Bi gailu konektatzeko Wi-Fi Directo erabili aurretik, ziurtatu WiFi sarea aktibatuta dagoela bi gailuetan.

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Wi-Fi**.
3. Aktibatu **Wi-Fi**.
4. Sakatu **Wi-Fi Directo** Wi-Fi Directo gaitzeko. Telefonoak eskuragarri dauden gailuak bilatuko ditu.
5. Hautatu gailu bat.

## Fitxategiak Wi-Fi Directo bidez bidaltzea

Luze sakatu bidali nahi duzun fitxategia, eta sakatu **Compartir > Wi-Fi Directo** pantailan agertzen den leihoan. Telefonoak ikusgai dauden beste gailuak bilatzen ditu automatikoki, eta bistaratu egiten ditu. Hautatu gailu bat fitxategia jasotzeko.

## Fitxategiak Wi-Fi Directo bidez hartzea

Telefonoak Wi-Fi Directo bidez fitxategiak transferitzeko eskaera bat jasotzen duenean, pantailan **Transferencia de archivos** elkarrizketa-koadroa bistaratu da. Ukitu **Aceptar**, fitxategia jasotzeko. Ireki jakinarazpen-panela, eta sakatu **Notificaciones** fitxategiaren transferentzia-prozesua ikusteko. Lehenespenez, jasotako fitxategiak **Wi-Fi Directo** karpetan gordetzen dira, **Archivos** atalean.

## Telefono baten eta ordenagailuaren artean datuak transferitzea

### Irudiak transferitzeko moduan nola konektatu

Irudiak Transferitzeko Protokoloa (PTP) erabil daitezke irudiak telefonoaren eta ordenagailuaren artean erraz transferitzeko.

1. Erabili USB kablea telefonoa ordenagailuari konektatzeko.
2. Lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko. Konfiguratu **USB conectado** aukera, **Fotos** gisa. Behar diren kontrolagailuak automatikoki instalatuko dira ordenagailuan.

Kontrolagailuak instalatuta daudela, sakatu bi aldiz ordenagailuan agertuko den unitate berriaren ikonoa, telefonoan gordetako argazkiak ikusteko.

### Multimedia transferitzeko moduan nola konektatu

Multimedia Transferitzeko Protokoloa (MTP) komunikazio-protokolo bat da, telefonoaren eta ordenagailuaren artean fitxategiak transferitzeko. MTP erabiltzeko, ordenagailuak Windows Media Player 11 edo bertsio berriagoa eduki behar du.

1. Erabili USB kablea telefonoa ordenagailuari konektatzeko.

2. Lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko. Konfiguratu **USB conectado** aukera, **Archivos** gisa. Behar diren kontrolagailuak automatikoki instalatuko dira ordenagailuan. Kontrolagailuak instalatuta daudela, sakatu bi aldiz ordenagailuan agertuko den unitate berriaren ikonoa, telefonoan gordetako fitxategiak ikusteko. Telefonoko multimedia-edukiak araka daitezke, Windows Media Player erabiltzea.

## **USB flash unitate gisa konektatzea**

Telefonoan microSD txartel bat sartuz gero, USB flash unitate gisa erabil daiteke, eta fitxategiak transferitu microSD txartelaren eta ordenagailuaren artean.

1. Erabili USB kablea telefonoa ordenagailuari konektatzeko.
2. Lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko. Konfiguratu **USB conectado** aukera, **Unidad USB** gisa. Behar diren kontrolagailuak automatikoki instalatuko dira ordenagailuan.

Kontrolagailuak instalatuta daudela, ordenagailuak USB flash unitate gisa identifikatuko du telefonoa. Sakatu bi aldiz ordenagailuan agertuko den unitate berriaren ikonoa, telefonoaren microSD txarteleko fitxategiak ikusteko.

# Aplikazioak


## Aplikazioak administratzea


### Aplikazioak deskargatzea

Jatorri askotako aplikazio ugari dago. Posible da:



- Aplikazioak deskargatzea webgune batetik, telefonoaren nabigatzailea erabilita.
- Aplikazioak deskargatzea ordenagailuan, eta telefonora kopiatzea.
- Telefonoa ordenagailu batera konektatzea eta aplikazioak deskargatzea, aplikazioak deskargatzeko hirugarrenen aplikazio baten bidez.

### Aplikazioak instalatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Categorías** aukeran, sakatu **Aplicaciones**.
3. Aplikazioen zerrendan, sakatu instalatu nahi duzun aplikazioa, eta segi pantailako jarraibideei.

 Instalazio-prozesuan, irakurri arretaz **Instalación bloqueada** mezua, bistaritzen denean, eta segi pantailan agertzen diren gainerako jarraibideei.

### Aplikazioak desinstalatzea

1. Pantaila nagusian, luze sakatu desinstalatu nahi duzun aplikazioaren ikonoa,  bistaratu arte pantailaren goiko aldean.
2. Arrastatu ikonoa  bistaratu arte, eta jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei aplikazioa desinstalatzeko.

 Aurrez instalatutako aplikazio batzuk ezin dira desinstalatu.



## Segurtasun-kopia

### Memoria lokaleko datuen segurtasun-kopia

1. Pantaila nagusian, sakatu **Herramientas > Copia de seguridad**.
2. Sakatu **Nueva copia de seguridad**.
3. Hautatu segurtasun-kopia egiteko datuak, eta segi pantailako jarraibideei kopia egiteko.

Lehenespenez, segurtasun-kopiako datuak **HuaweiBackup** karpetan gordetzen dira, **Archivos** atalean.



Telefonoaren modelo batzuetan, segurtasun-kopia batzuk zifratu egin daitezke, eta pasahitz bidez babestu. Pasahitza idatzi behar da, zifratutako segurtasun-kopietara sartzeko.

### Memoria lokaleko datuak berrezartzea

1. Pantaila nagusian, sakatu **Herramientas > Copia de seguridad**.
2. Hautatu berrezarri nahi dituzun datuak. Ikus segurtasun-kopiaren data eta ordua fitxategiaren izenean, berrezarri nahi dituzun datuak kokatzeko.
3. Segurtasun-kopiaren fitxategia zifratuta baldin badago, segi pantailako jarraibideei, pasahitza sartzeko, eta sakatu **Aceptar**.
4. Hautatu berrezarri nahi dituzun datuak, eta sakatu **Restablecer**.

## Telefonoaren kudeatzailea

Telefonoaren kudeatzailea Huaweiaren sistemaren kudeaketa-aplikazio eskusibo bat da: aukera ematen du telefonoa hobeto babesteko eta kudeatzeko. Aukera hauek ematen ditu:

- Gorabeherarik baden aztertu eta zakarrontzia hustu, sistema optimizatzeko.
- Energia aurrezteko modua gaitu, telefonoa deiak jasotzeko egoeran luzaragoan egon dadin.
- Nahi ez dituzun deiak, jakinarazpenak eta mezuak blokeatu.



Telefonoaren kudeatzailearen funtzioak eta zerbitzuak eskualdearen, herrialdearen edo operadorearen arabera egongo dira erabilgarri.


## Sistemaren optimizazioa

Aztertu sistema gorabeherarik badagoen jakiteko, eta optimiza ezazu telefonoak behar bezala funtziona dezan.

Pantaila nagusian, sakatu  . Ondoren, hau egin dezakezu:

- Sakatu **Analizar** edo **Pulsar para analizar**. Telefonoaren egoera ikusi ahal izango duzu, zakarrontzia hustu, sistema optimizatu eta segurtasun-arriskuak deuseztatu.
- Sakatu **Acelerador del teléfono** exekutatzeko ari diren aplikazioak ikusteko eta behar ez dituzunak ixteko.
- Sakatu **Liberador de espacio** cache memoria aztertzeko, sistemaren zakarrontzia usteko eta sarri erabiltzen ez dituzun aplikazioak, instalazio-paketeak eta nahi ez dituzun fitxategiak ezabatzeko.

## Energia aurreztea


1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Sakatu **Ahorro de energía** energia-kontsumoa egiaztatzeko eta telefonoak deiak jasotzeko egoeran luzaragoan iraun dezan. Aukeratu energia aurrezteko modu bat edo bestea, zure beharraren arabera.

## Jazarpen-iragazkia

Pantaila nagusian, sakatu  . Ondoren, hau egin dezakezu:

- Sakatu **Filtro de acoso** zerrenda beltza bat osatzeko; horren bidez, jaso nahi ez dituzun deiak eta mezuak blokea ditzakezu.
- Sakatu **Centro de notificaciones** aplikazio jakinen push jakinarazpenak blokeatzeko.
- Enable **No molestar**. Your phone will ring only when you receive calls from allowed contacts. Tones and vibrations for other calls, messages, and notifications will be disabled.




## Datuen erabilera kudeatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu  .
2. Sakatu **Gestor de tráfico** datu-planaren mugak eta dagozkien alertak ezartzeko, eta datu-erabilerari buruzko informazio xehatua ikusteko.


## Egutegia

Calendario aplikazioa laguntzaile pertsonal bat da, eta aukera ematen du gertaera garrantzitsuak administratzeko eta antolatzeko, bai eta gertaera horien jakinarean gainean egoteko ere. Adibidez, zure eguneroko jarduerak aldeztu aurretik planifikatu ditzakezu, eta jai-egunei buruzko informazioa ikusi. Zure kontaktuen urtebetetze-egunak gorde badituzu, egutegiak automatikoki sortuko ditu urtebetetzeen gogorarazpenak.




### Gertaerak sortzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu .
3. Idatzi gertaeraren xehetasunak; adibidez, izena, hasierako ordua, amaiera eta gogorarazlea, eta errepikatze maiztasuna.
4. Sakatu .

### Egutegia bistaratzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Calendario** pantailan, egin hau:
  - Sakatu **Mes**, **Semana** eta **Día** hilabeteko, asteko eta eguneko ikuspegiak txandakatzeko.
  - Hilabetearen ikuspegian, lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera hilabete batetik bestera aldatzeko.
  - Astearen ikuspegian, lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera aste batetik bestera aldatzeko.
  - Egunaren ikuspegian, lerratu hatza ezkerrera edo eskuinera egun batetik bestera aldatzeko.






### Egutegia sinkronizatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu  > **Calendarios visibles**.
3. Hautatu zer konturen egutegia bistaratzea nahi duzun.
4. Sakatu  > **Calendarios para sincronizar**.







5. Hautatu kontua eta sinkronizatu dagokion egutegia.

## Erlojua






### Alarma

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Alarma** atalean, aukera hauek dituzu:
  - Gehitu alarmak: Sakatu , eta konfiguratu alarmaren data eta ordua, tonua, errepikapenaren maiztasuna eta abar. Ondoren, sakatu .
  - Aktibatu/desaktibatu alarma: Sakatu alarmaren eskuinean dagoen hautagailua, aktibatzeke edo desaktibatzeke.
  - Alarmak konfiguratzea: Sakatu , eta konfiguratu atzeratzearen iraupena, alarmak modu isilean jotzea eta bolumen-botoien funtzioa.
  - Alarmak ezabatzea Luze sakatu ezabatu nahi duzun alarma, eta sakatu .







### Munduko erlojua erabiltzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Reloj univ** atalean, aukera hauek dituzu:
  - Hiriak gehitu: Sakatu , eta, gero, idatzi hiri baten izena edo aukeratu zerrendako hiri bat; eta, ondoren, sakatu ezazu.
  - Konfiguratu ordu-eremua: Sakatu , tokiko ordu-eremua, data eta ordu-sistema konfiguratzeko.
  - Hiriak ezabatu: Sakatu , sakatu  ezabatu nahi duzun hiriaren alboan, eta sakatu .

### Kronometroa

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Cronómetro** aukeran, sakatu  denbora zenbatzen hasteko.
3. Sakatu  itzuli asko erregistratzeko.
4. Sakatu  kronometroa geldiarazteko.
5. Sakatu , kronometroko erregistro guztiak ezabatzeko.

## Tenporizadorea



1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Temporiz.** aukeran, arrastatu puntu gorria, atzeranzko kontaketa konfiguratzeko.  
 Sakatu , tenporizadorearen tonua konfiguratzeko.
3. Amaitutakoan, sakatu  tenporizadorea abian jartzeko.
4. Tenporizadoreak amaitzen duenean, telefonoak tonu bat joko du, eta denbora estra kontaktzen hasiko da. Lerratu hatza tonua isilarazteko eta tenporizadorea berrabiarazteko.  
 Tenporizadorea martxan dagoenean, sakatu  berrabiarazteko.

## Eguraldia




El tiempo aplikazioaren bidez erabiltzailea dagoen lekuko eta munduko beste hainbat hiritako eguraldiaren iragarpena kontsultatu dezakezu.

### Hiriak gehitzea

Gehitu hiriak, eguraldiari buruzko informazioa denbora errealean ikusteko.

1. Pantaila nagusian, sakatu **Herramientas > El tiempo**.
2. Sakatu  >  eta adierazi hiriaren izena. Bat datozen hiriak pantailan bistaratuko dira.
3. Sakatu gehitu nahi duzun hiria.




### Hiriak ezabatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu **Herramientas > El tiempo**.
2. Sakatu , luze sakatu ezabatu nahi duzun hiria, eta, ondoren, sakatu .
3. Sakatu .

### Eguraldiari buruzko informazioa eguneratzea


1. Pantaila nagusian, sakatu **Herramientas > El tiempo**.
2. Lerratu hatza ezkerredera edo eskuinera, zein hiritako eguraldiari buruzko informazio eguneratua ikusi nahi duzun aukeratzeko.

3. Lerratu hatza beherantz pantailaren goiko aldetik eguraldiari buruzko informazioa eskuz eguneratzeko.

 Eguraldiaren iragarpena automatikoki eguneratzeko modua ere konfiguratu dezakezu. Sakatu  >  , hautatu **Actualización automática**, eta konfiguratu **Actualización**. Konfiguraturako maiztasunarekin eguneratuko du telefonoak eguraldiari buruzko informazioa.

## Ohar-blokak

### Oharrak eranstea



1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu **Nota nueva** eta idatzi oharra.

 Sakatu  irudi bat txertatzeko.

3. Sakatu .

Oharra gorde ondoren, partekatu, ezabatu edo gogokoetara erants dezakezu.



### Mezuen doikuntzak aldatzea


1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. Sakatu  > **Ajustes** letra-tamaina doitzeko edo oharraren diseinua ikusteko.

## FM irratia

Konektatu aurikularrak telefonora, FM irratia antenna gisa erabiliko ditu eta.


### Irrati-kateen bilaketa


1. Pantaila nagusian, sakatu **Herramientas** > **Radio FM**.
2. Sakatu  >  gogoko kateak bilatzeko eta gordetzeko.

 Telefonoak automatikoki bilatuko eta gordeko ditu irradi-kateak FM irratia erabiltzen duzun lehen aldian.



## FM irratia nola entzun

Pantaila nagusian, sakatu **Herramientas > Radio FM**.




- 
- 1 Sakatu  bozgorailua gaitzeko edo desgaitzeko.


---

  - 2 Sakatu  uneko katea gogokoetan gehitzeko.  
Sakatu  irradi-katea bilatzeko.


---

  - 3 Sakatu  FM irratia pizteko edo itzaltzeko.


---

  - 4 Sakatu  aurreko katera itzultzeko.

---

  - 5 Sakatu  hurrengo katera joateko.



---

  - 6 Sakatu  kate-zerrenda ikusteko, gogoko kateak ikusteko eta tenporizadore bat ezartzeko FM irratia automatikoki itzaltzeko.
-


# Telefonoaren doikuntza

## Kokapen-zerbitzuak aktibatzea

Mapa bat edo nabigazio-aplikazio bat erabili aurretik, ziurtatu kokapen-zerbitzuak aktibatu dituzula.

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Acceso a la ubicación**.
3. Sakatu , telefonoaren kokapen-zerbitzua gaitzeko.
4. Sakatu **Modo de ubicación**. Gero, egin hau:
  - **Alta precisión** sakatu, zure kokapena GPS, Wi-Fi eta datu mugikorren bidez zehazteko.
  - **Ahorro de batería** sakatu, zure kokapena Wi-Fi eta datu mugikorren bidez zehazteko.
  - **Solo dispositivo** sakatu, zure kokapena GPS bidez zehaztasunez jakiteko.


## Dei-tonuen doikuntzak aldatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Sonido**.
3. **Sonido** pantailan, egin hau:
  - Sakatu **Volumen** eta arrastatu kontrol lerragarriak musikaren, dei-tonuaren, jakinarazpen-tonuen, alarmen, deien eta abarren bolumena konfiguratzeko.
  - Sakatu **Modo silencioso**, modu isila aktibatzeko edo desaktibatzeko.
  - Sakatu **Vibrar en modo silencioso** telefonoa modu isilean dagoenean bibrazioa gaitzeko edo desgaitzeko.
  - Sakatu **Tono de llamada**, dei-tonu bat aukeratzeko. Telefonoak bi txartel onartzen baldin baditu, tonu desberdin bat konfiguratu daiteke txartel bakoitzerako.
  - Sakatu **Vibrar al sonar** aukera, telefonoak jotzen duenean bibrazioa gaitzeko edo desgaitzeko. Telefonoak bi SIM txartel onartzen baditu, bibrazio-aukera desberdina konfiguratu daiteke txartel bakoitzerako.




- Sakatu **Tono predeterminado de notificaci....** jakinarazpen-tonu bat konfiguratzeko.
- **Sistema** aukeran, sakatu hautagailuak bibrazioa edo jakinarazpen-tonua aktibatzeke edo desaktibatzeke, pantaila sakatu edo blokeatzean, zenbaki bat markatzean, etab. jo dezan edo ez.

## Pantailaren doikuntzak nola aldatu


1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Pantalla**.
3. **Pantalla** aukeran, egin hau:
  - Sakatu **Temperatura de color** pantailaren kolore-tenperatura doitzeko. Kolore-tenperatura eskuz doitzeko, utzi hautatu gabe **Predeterminada** kontrol-laukia.
  - Blokeatzeko pantailaren eta pantaila nagusiaren atzealdeak konfiguratzeko, sakatu **Fondo de pantalla**.
  - Sakatu **Tamaño de fuente**, pantailako letra-tamaina aldatzeko.
  - Sakatu **Protector de pantalla**, pantaila-babesa aktibatzeke edo desaktibatzeke. Funtzio hori gaituta badago, pantaila-babesa automatikoki aktibatuko da telefonoa kargatzen denean.
  - Sakatu **Mostrar nombre del operador** aukera, pantaila blokeatuta dagoenean egoera-barran operadorearen izena erakusteko edo ezkutatzeko.
  - Pantailaren distira doitzeko, sakatu **Brillo**.
  - Pantaila noiz itzaliko den konfiguratzeko, sakatu **Reposo**. Telefonoa zehaztutako denboran erabiltzen ez bada, pantaila automatikoki blokeatuko da, bateria aurrezteko.
  - Sakatu **Giro automático de pantalla** pantaila automatikoki biratzea nahi duzun zehazteko. Funtzio hori aktibatuta badago, pantailaren orientazioa automatikoki aldatuko da zenbait eragiketa egitean (webgune batean nabigatzean, irudi bat ikustean edo mezu bat idaztean) erabiltzaileak telefonoari nola eusten dion kontuan izanda.

## Bloqueo-pantailaren estiloa aldatzea


### Pantaila desblokeatzeko eredua konfiguratzeko

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Bloqueo de pantalla y claves**.
3. Sakatu **Clave > Patrón**.
4. Konektatu gutxienez lau puntu eredua marrazteko, eta marraztu berriro eredua, berresteko.
5. Ezarri pantaila desblokeatzeko PIN bat, eredua ahazten bazaizu telefonoa desblokeatu ahal izateko.

### Pantaila desblokeatzeko PINa konfiguratzeko

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Bloqueo de pantalla y claves**.
3. Sakatu **Clave > PIN**.
4. Sartu gutxienez lau digitu dituen, eta sartu berriro, berresteko.

### Pantaila desblokeatzeko pasahitza konfiguratzeko


1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Bloqueo de pantalla y claves**.
3. Sakatu **Clave > Contraseña**.
4. Sartu gutxienez lau karaktere (horietako batek letra bat izan behar du), eta, ondoren, sartu berriro, hura berresteko.


## Hegazkin-modua aktibatzea eta desaktibatzea



Telefonoaren seinale-harrerak edo -transmisioak interferentziak sor ditzake hegazkinaren aeronabigazio-sistemekin. Hegazkin batean zaudenean, itzali telefonoa edo hautatu hegazkin modua, eskatzen denaren arabera. Hegazkin-moduan, telefonoaren haririk gabeko funtzioak desaktibatu egiten dira, baina musika entzuteko edo jokoetan ibiltzeko erabil daiteke gailua.

Hauetakoren bat egin behar duzu **hegazkin-modua** desaktibatzeko:


- Lerratu hatza beherantz, egoera-barraren gainean, jakinarazpen-panela irekitzeko. **Accesos directos** aukeran, sakatu **Modo avión**.
- Luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, eta sakatu **Modo avión**.
- Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, **Todos** fitxa. **Redes inalámbricas y redes** aukeran, sakatu **Más** eta, ondoren, **Modo avión** hegazkin-modua aktibatzeko edo desaktibatzeko.

Hegazkin-modua aktibatzen denean,  bistaratuko da egoera-barran.

## SIM txartelaren PINa konfiguratzeko

Identifikazio-zenbaki pertsonala (PIN) SIM txartelarekin batera ematen da, eta telefonoko datuak babesteko balio du. SIM txartela blokeatzeko aukera aktibatuz gero, PIN zenbakia sartu behar duzu telefonoa pizten duzun bakoitzean.

Eragiketa hauek egiteko, ziurtatu SIM txartelaren PINa eman dizula zerbitzu-hornitzaileak.

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Seguridad**
3. Sakatu **Bloqueo de tarjeta SIM**.
4. Sakatu **Bloquear tarjeta SIM**. Telefonoak bi txartel onartzen baditu, PIN bat konfiguratu dezakezu txartel bakoitzerako.
5. Sartu PINa eta sakatu **Aceptar**.


6. Sakatu **Cambiar PIN1 de SIM**, PINa aldatzeko.





Oro har, SIM txartelak segidako saio-kopuru jakin bat bakarrik egiten uzten du PINa sartzeko. Muga gaindituz gero, PINa desblokeatzeko pasahitza (PUK) sartu behar duzu. Pasahitz hori zerbitzu-hornitzaileak emango dizu. PUK kodea sartzeko saio-kopurua ere mugatua da. Muga gaindituz gero, desgaitu egingo da SIM txartela. Muga horiei buruzko xehetasun gehiago jakiteko, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

## Kontuak konfiguratzeari



### Kontuak gehitzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Cuentas**.
3. Sakatu **Añadir cuenta**, hautatu kontu-mota bat.
4. Jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideei kontuaren informazioa sartzeko.


### Kontuak ezabatzea


1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, **Todos** fitxa.
2. **Cuentas** aukeran, hautatu kontu-mota bat.
3. Hautatu ezabatu nahi duzun kontua.
4. Sakatu  kontu bat ezabatzeko.

### Datuen sinkronizazioa aktibatzea


1. Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, **Todos** fitxa.
2. **Cuentas** aukeran, hautatu kontu-mota bat.
3. Hautatu zer kontu sinkronizatu nahi duzun.
4. Sakatu  hautagailua, datuen sinkronizazioa aktibatzeko.

## Fabrikako doikuntzak berrezartzea

 Telefonoaren fabrikako doikuntzak berrezarri gero, telefonoaren memoriako datu pertsonal guztiak ezabatu egingo dira: baita kontuei buruzko informazioa, aplikazioen eta sistemaren doikuntzak eta instalatutako aplikazioak ere. Fabrikako doikuntzak berrezarri aurretik, egin telefonoan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopiak.


1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Copia de seguridad y restauración**.
3. Sakatu **Restablecer datos de fábrica > Restablecer > Restablecer**. Fabrikako doikuntzak berrezarriko dira, eta telefonoa berrabiarazi egingo da.


## Telefonoa eguneratzea

-  Telefonoa eguneratzeko hirugarrenen software baimendu gabea erabiltzeak telefonoa kaltetu dezake, baita informazio pertsonala arriskuan jarri ere. Sistema eguneratzean, baliteke datu guztiak ezabatzea.
- Telefonoa eguneratu aurretik datu garrantzitsuen segurtasun-kopiak egitea gomendatzen da.

## Linean eguneratzea


Telefonoa eguneratu aurretik, ziurtatu sarera konektatuta dagoela.

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Actualizar software**.
3. Sakatu **Buscar actualizaciones**. Jarraitu pantailako jarraibideei, eguneratzeak deskargatu eta instalatzeko, horrelakorik baldin badago.


 Linean eguneratzeak kostuak eragin ditzake, datuen erabilerarengatik. WiFi bidez eguneratzea gomendatzen da.

## Data eta ordua konfiguratzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .

2. **Todos** aukeran, sakatu **Fecha y hora**.
  3. **Fecha y hora** pantailan, egin hau:
    - Sakatu **Fecha y hora** automáticas hautagailua sareak ematen dituen data eta ordua erabiltzeko, edo eskuz konfiguratzeko.
    - Sakatu **Zona horaria automática** hautagailua sareak emandako ordu-eremua erabiltzeko, edo eskuz konfiguratzeko.
    - Sakatu **Usar formato de 24 h** hautagailua 24 orduko formatua edo 12koa hautatzeko.
    - Sakatu **Formato de fecha**, data pantailan ikusteko modua aukeratzeko.
    - Sakatu **Reloj doble** desplazamendua erabiltzen duzunean bi erloju ikusteko.
-  Baliteke zerbitzu-hornitzaile batzuek data eta ordua eskuz konfiguratzeko aukerarik ez ematea.


## Sistemaren hizkuntza aldatzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Idioma e introducción**.
3. Sakatu **Idioma y región**.
4. Hautatu hizkuntza.

## Pribatutasuna babestea


Eragotzi beste erabiltzaile batzuk zure eduki pribatuetara sartzea. Gaitu pribatutasunaren babesa, eta eta konfiguratu desblokeatzeko bi pasahitz, bata zuretzat eta bestea gonbidatuentzat.

## Pribatutasunaren babesa gaitzea


1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Seguridad**
3. Sakatu **Protección de privacidad > Inicio**.
4. Hautatu pasahitz-mota bat.

5. Jarraitu pantailako argibideei jabearen eta gonbidatuaren pasahitzak sartzeko. Pribatutasunaren babesa gaitu ondoren, jabearen pasahitza sartzen duzunean, telefonoaren eduki guztia ikusi ahal izango duzu. Gonbidatuaren pasahitza sartzen baduzu, babestu gabeko edukia bakarrik bistaratuko da.

## Informazio pribatua konfiguratzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Seguridad**
3. Sakatu **Protección de privacidad**.
4. Sartu jabearen pasahitza eta sakatu **Siguiente**.
5. **Configurar datos privados** aukeran, konfiguratu album, aplikazio eta kontaktu pribatuak.

## Pribatutasunaren babesa desgaitzea

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Seguridad**
3. Sakatu **Protección de privacidad**.
4. Sartu jabearen pasahitza eta sakatu **Siguiente**.
5. Desgaitu **Protección de privacidad**.



Pribatutasunaren babesa desgaitzen duzunean, jabearen pasahitzak pantaila desblokeatzeko pasahitz gisa funtzionatuko du, eta gonbidatuaren pasahitza baliogabetu egingo da.

## Irisgarritasuna

Irisgarritasun-funtzioak aktiba eta desaktiba daitezke, adibidez, zooma eta letra-tamaina handitzea.

1. Pantaila nagusian, sakatu .
2. **Todos** aukeran, sakatu **Accesibilidad**.
3. Hautatu zein irisgarritasun-funtzio gaitu nahi dituzun.

# Segurtasun-informazioa

Atal honetan zure gailuaren funtzionamenduari buruzko informazio garrantzitsua ageri da. Gainera, gailua modu seguruan nola erabili deskribatzen du. Irakurri arretaz informazio hau zure telefonoa erabili aurretik.


## Gailu elektronikoak

Ez erabili gailua debekatuta dagoenean. Ez erabili gailua arriskutsua izan daitekeenean, edo beste gailu elektroniko batzuekin interferentziak sor ditzakeenean.

## Gailu medikoekiko interferentziak

- Bete ospitaleetan eta osasun-zentroetan indarrean dauden arauak. Ez erabili gailua debekatuta dagoen tokietan.
- Haririk gabeko gailu batzuek audiofonoen edo taupada-markagailuen funtzionamenduari eragin diezaiokete. Argibide gehiagotarako, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.
- Taupada-markagailuen fabrikatzaileek gomendatzen dute telefono mugikorren eta taupada-markagailuaren artean gutxienez 15 cm-ko distantzia izatea, interferentziarik ez sortzeko. Taupada-markagailua bat edukiz gero, erabili telefonoa haren kontrako aldeko belarrian, eta ez ezazu eraman bularraldeko poltsikoan.

## Entzungailuak erabiltzen dituzunean entzumena nola babestu

-  Entzumenean kalterik ez eragiteko, ez entzun musika oso ozen, denbora luzez.
- Entzungailuak oso ozen erabiliz gero, baliteke entzumena kaltetzea. Lesioak galarazteko, jaitsi bolumena maila seguru eta eroso batera.
- Ibilgailu bat gidatzen ari zarela bolumena oso altu edukiz gero, arreta galduko duzu beharbada, eta istripua edukitzeko aukera areagotu egiten da.

## Elementu suharberak eta leherkariak dauden guneak

- Ez erabili gailua elementu suharberak eta leherkariak dauden guneetan (adibidez, gasolindegietan, olio-tangetan edo instalazio kimikoetan).



Gailua horrelako eremuetan erabilia, leherketak edo suteak izateko arriskua areagotu egiten da. Gainera, bete idatziz edo ikurren bidez adierazitako jarraibideak.

- Ez gorde edo garraiatu gailua gas edo likido suharberak edo leherkariak dauden ontzietan.

## **Bide-segurtasuna**

- Gailua erabiltzen duzunean, bete itzazu tokiko arauak eta legeak. Istripurik ez gertatzeko, ez erabili haririk gabeko gailua gidatzen ari zaren bitartean.
- Jarri arreta gidatzean. Modu seguruan gidatzea da zure ardura nagusia.
- Gidatzen ari zarela, ez hartu eskuetan gailua. Erabili esku libreko gailuak.
- Dei bat egin behar baduzu edo dei bati erantzun behar badiozu, lehenengo gelditu autoa toki seguru batean, eta aparka ezazu.
- Baliteke irrati-maiztasuneko seinaleek ibilgailuetako sistema elektronikoei eragitea. Informazio gehiago lortzeko, galdetu ibilgailuaren fabrikatzaileari.
- Automotorean, ez jarri telefonoa airbag baten gainean edo hura hedatzeko eremuan. Airbaga puzten baldin bada, baliteke zauriak eragitea, indar handiarekin puzten baita.
- Ez erabili gailua hegazkin batean edo hegazkinera igo baino pixka bat lehenago. Haririk gabeko gailuak hegazkinean erabiltzeak interferentziak eragiten ditu batzuetan haririk gabeko sarean, eta arriskutsua izan daiteke hegazkinaren beraren funtzionamenduarentzat. Gainera, legez kanpokoak izan daiteke.

## **Operating environment**

- Ez erabili gailua hautsa, hezetasuna edo zikinkeria dagoen lekuetan. Ere mu magnetikoak dituzten lekuetan ere ez erabili. Gailua inguru horietan erabiltzeak zirkuitua gaizki ibiltzea eragin dezake.
- Ez erabili gailua ekaitz elektrikoetan, deskarga atmosferikoen eragindako arrisku-egoeretatik babesteko.
- Gailua erabiltzeko tenperatura egokiena 0 °C eta 35 °C artekoa da. Gailuan biltegitratzeko tenperatura egokiena -20 °C eta 45 °C artekoa da. Baliteke muturreko hotzak edo beroak gailua edo haren osagarriak hondatzea.

- Ez utzi gailua denbora luzean eguzkiaren argiak zuzenean jotzen duela (adibidez, autoaren aginte-mahaiaren gainean).
- Suteetatik edo deskarga elektrikoetatik gailua eta haren osagarriak babesteko, ez jarri euritan edo toki hezeetan.
- Sutik edo bero-iturrietatik (adibidez, estufak, mikrouhin-labeak, sukaldeak, berogailuak, erradiadoreak edo kandelak) urrun eduki gailua.
- Ez jarri metalezko objektu zorrotzik (adibidez, orratzak) entzungailuetatik edo bozgorailuetatik gertu. Entzungailuak erakarri egin ditzake objektu horiek, eta lesioak eragin.
- Asko berotzen bada, ez erabili aldi batez aplikazioak edo gailua. Zure azalak denbora luzean ukitzen badu gehiegi berotutako gailu bat, baliteke tenperatura baxuko erreduren sintomak edukitzea; adibidez, gorritasuna edo pigmentazio ilunagoa.
- Ez jarri kamera flasha piztua duela pertsonen edo animalien begietara begira. Aldi batez ez ikustea edo ikusmenean kaltea eragin ditzake.
- Ez ukitu gailuaren antena. Hala eginez gero, baliteke komunikazioaren kalitateari eragitea.
- Ez utzi umeei eta maskotei gailuei eta haren osagarriei koska egiten, ez eta ahoan sartzen ere. Kalteak edo leherketak eragin ditzakete.
- Errespetatu tokiko legeak eta arauak, eta gainerakoen pribatutasuna eta eskubideak.

## **Haurren segurtasuna**

- Bete haurren segurtasunerako neurri guztiak. Arriskutsua izan daiteke haurrei gailuarekin edo haren osagarrieekin jolasten uztea. Telefonoak desmunta daitezkeen zatiak ditu, eta itotzeko arriskua eragin dezakete. Ez utzi haurren eskueran.
- Gailua eta osagarriak ez daude diseinatuta haurrek erabil ditzaten. Heldu baten zaintzapean barrik erabil dezakete gailua haurrek.

## **Osagarriak**

- Baimendu gabeko edo bateragarriak ez diren bateriak, kargagailuak edo egokigailuak erabiliz gero, suteak, leherketak edo egoera arriskutsuak gerta daitezke.

- Erabili soilik fabrikatzaileak modelo honetarako onartutako osagarriak. Beste elikadura-osagarriren bat erabiltzeak bermea baliogabetu dezake, tokiko legea edo araudiak urratu ditzake eta arriskutsua izan daiteke. Jarri harremanetan minoristarekin zu bizi zaren eremuan onartutako osagarriei buruzko informazioa eskuratzeko.

## **Kargagailuaren segurtasuna**

- Entxufa daitezkeen gailuei dagokienez, korrante-harguneak gailutik gertu egon behar du, eta erraz iristeko moduan egon behar du.
- Deskonektatu kargagailua energia-hargunetik eta gailutik, erabiltzen ari ez zarenean.
- Ez dadila kargagailua erori, eta ez dezala kolperik hartu.
- Elikatze-haria hondatzen baldin bada (esaterako, hariak bistan badaude edo hautsi egin badira), edo entxufea askatzen ari bada, ez erabili kablea gehiago. Erabiltzen segitzen baduzu, baliteke deskarga elektronikoren bat, zirkuitulaburren bat edo sutereren bat gertatzea.
- Ez ukitu elikatze-kableak esku bustiekin, eta ez egin tira kabletik kargagailua deskonektatzeko.
- Ez ukitu gailua eta kargagailua eskuak bustiak dituzula. Hala eginez gero, baliteke deskarga elektronikoko bat edo zirkuitulabur bat gertatzea, edo gailuak gaizki funtzionatzea.
- Gailua urarekin (edo beste likido batekin) busti bada edo toki oso hezean egon bada, eraman zerbitzu-zentro baimendu batera, han berrikus dezaten.
- Ziurtatu kargagailuak IEC60950-1/EN60950-1 gomendioko 2.5 klausuletako eskaerak betetzen dituela, eta estatuko edo tokiko arauen arabera egiaztatu eta onartu dela.
- USB-IF logotipoa duten edo USB-F programa gainditu duten produktuetara bakarrik komentatu telefonoa.

## **Bateriaren segurtasuna**

- Ez hurbildu bateriaren poloak objektu eroaleetara (adibidez, giltzak, bitxiak edo metalezko beste material batzuk). Hala eginez gero, zirkuitulaburrak sor daitezke baterian, eta horrek lesioak edo erredurak ekar ditzake.

- Ez eduki bateria bero gehiegi dagoen lekuetan, ez eta argi gehiegi dagoen lekuetan edo eguzkiak zuzenean ematen dion tokietan ere. Ez jarri berotzen diren gailuen gainean, (mikrouhin-labeak, sukaldeak edo erradiadoreak) ez eta horien barruan ere. Gehiegi berotzen bada, bateria lehertu egin daiteke.
- Ez saiatu bateriaren egitura aldatzen, eta ez sartu objektu arrotzik barruan. Ez sartu uretan edo beste likido batean; eta ez utzi hori gertatzeko arriskua dagoen tokietan. Suteak, leherketak edo egoera arriskutsuak eragin ditzake horrek.
- Bateriak likido elektrolitikoak galtzen badu, ez ditzala azala eta begiak ukitu. Likido elektrolitoak azala edo begiak ukitzen baditu, garbitu begiak ur garbiarekin berehala, eta, galdetu medikuari.
- Bateria deformatu egiten bada, kolorez aldatzen bada edo gehiegi berotzen bada kargatzean edo gordetzean, ez erabili gehiago eta atera bateria. Erabiltzen segitzen baduzu, baliteke likido elektrolitikoak galtzea eta sute edo leherketa bat sortzea.
- Ez bota inoiz bateriak sutara, lehertu egin baitaitezke. Bestalde, bateriak lehertu egin daitezke hondatuta baldin badaude.
- Bete herriko araudia erabilitako bateriak botatzeko garaian. Bateria behar bezala ez erabiltzeak suteak, leherketak edo beste arrisku batzuk ekar ditzake.
- Ez utzi umeei eta maskotei bateriari koska egiten, ez eta ahoan sartzen ere. Kalteak edo leherketak eragin ditzake.
- Ez zapaldu edo zulatu bateria; eta ez eragin gehiegizko presiorik kanpoko aldean. Hala eginez gero, baliteke zirkuitulabur bat sortzea edo bateria gehiegi berotzea.
- Ez utzi gailuari eta bateriari erortzen. Zure gailuak edo bateriak gainazal gogor bat jotzen badute, hondatu egin daitezke.
- Gailuaren itxarote-denbora asko laburtzen bada, aldatu bateria.

## **Garbiketa eta mantentze-lanak**

- Lehor eduki gailua eta osagarriak. Ez saiatu azkarrago lehortzen kanpoko bero-iturri batekin (adibidez, mikrouhin-labea edo ile-lehorgailua).

- Ez hurbildu telefonoa edo osagaiak muturreko hotzera edo berora. Inguru-mota horiek funtzionamenduan eragin dezakete, eta suteak edo leherketak eragin.
- Ez eman kolperik; izan ere, baliteke horren ondorioz gailuak ez ondo funtzionatzea edo gailua gehiegi berotzea eta suteak edo leherketak sortzea.
- Gailua garbitu aurretik edo mantentze-lanak egin aurretik, itxi aplikazio guztiak, utzi erabiltzeari, eta deskonektatu kable guztiak.
- Ez garbitu gailua edo haren osagarriak detergentearekin, hautsekin edo beste edozein agente kimikorekin (adibidez, alkohola edo bentzenoa). Substantzia horiek osagaiak honda ditzakete eta suteak eragin. Erabili zapi garbi, leun eta lehor bat.
- Ez jarri banda magnetikoak dituzten txartelak (adibidez, kreditu-txartelak edo telefonokoak) gailuaren ondoan denbora luzez. Horrek txartelaren banda magnetikoak honda ditzake.
- Ez desmuntatu edo aldatu gailuaren edo osagarrien egitura. Horrek bertan behera uzten du bermea, eta eragin daitezkeen kalteen erantzukizunetik libre uzten du fabrikatzailea. Arazoren bat edukiz gero, jakinarazi zerbitzu-zentro baimenduari, laguntza edo gailua konpontzeko eskatzeko.
- Gailuaren pantaila kolpe baten ondorioz hondatzen baldin bada, utzi berehala gailua erabiltzeari. Ez ukitu gailua, eta ez saiatu hondatutako zatiak kentzen. Jarri harremanetan zerbitzu-zentro baimendu batekin.

## **Larrialdi-deiak**

Sare zelularren kalitateak, zure zerbitzu-hornitzailearen politikek eta tokiko lege eta arauak eragiten diete larrialdi-deiei. Ez egon inoiz telefonoaren mende soilik larrialdi-deiak egiteko.

# Informazio pertsonala eta datuen segurtasuna:

Zure gailuan hirugarren batzuen funtzioak edo aplikazioak erabiliz gero, baliteke informazio eta datu pertsonalak galtzea edo haietara sartzeko aukerarik ez edukitzea. Zure informazio pertsonala eta konfidentziala babesten laguntzeko neurri batzuk gomendatzen dizkizugu:

- Jarri gailua toki seguruan, beste inork baimenik gabe erabil ez dezan.
- Konfiguratu gailuaren pantaila blokeatu dadin, eta sortu desblokeatzeko pasahitza edo eredu hura irekitzeko.
- Aldizka, egin SIM txartelean, memoria-txartelean edo gailuaren memorian gordetako informazio pertsonalaren segurtasun-kopiak. Gailua aldatuz gero, ziurtatu gailu zaharreko informazio pertsonal guztia aldatzen edo ezabatzen duzula.
- Ezezagunen mezuak edo mezu elektronikoak jasotzean birusek arduratzen baldin bazaituzte, ireki gabe ezabatu ditzakezu.
- Zure gailua Interneten nabigatzeko erabiltzen baduzu, ez sartu segurtasun-arriskua duten webguneetan, informazio pertsonala lapurtu ez diezazuten.
- WiFi-a edo bluetootha erabiltzen baldin badituzu, jarri pasahitza zerbitzu horiei, inork baimenik gabe erabil ez dezan. Zerbitzu horiek erabiltzen ez dituzunean, desaktiba itzazu.
- Instalatu edo eguneratu gailuaren segurtasun-softwarea, eta bilatu birusak aldizka.
- Ziurtatu hirugarren batzuen aplikazioak legezko iturrietatik eskuratzen dituzula. Deskargatutako hirugarren batzuen aplikazioak arakatu egin behar dituzu, birusak bilatzeko.
- Instalatu Huawei edo hirugarren batzuen aplikazioen hornitzaileek emandako segurtasun-softwareak edo -adabakiak.
- Aplikazio batzuek kokapen-informazioa behar dute, eta transmititu egiten dute. Beraz, hirugarren batek zure kokapenaren informazioa parteka dezake.

- Zure gailuak detektatze- eta diagnostiko-informazioa eman diezaieke hirugarrenen aplikazioen hornitzaileei. Beste hornitzaile batzuek beren produktuak eta zerbitzuak hobetzeko erabiltzen dute informazio hori.

# Lege-oharra

**Copyright © Huawei Technologies Co., Ltd. 2016. Eskubide guztiak erreserbatuta.**

Debekatuta dago eskuliburu honen zati bat erreproduzitzea edo transmititzea, edozein modutan eta edozein baliabideren bidez, Huawei Technologies Co., Ltd. enpresak eta haren afiliatuek (Huawei) aldez aurretik idatzizko baimenik eman ez badute.

Baliteke Huawei enpresaren eta beste lizentzia-emaile batzuen egile-eskubideek babestutako softwarea izatea eskuliburu honetan deskribatzen den produktuak. Bezeroek ezingo dute software hori erreproduzitu, banatu, aldatu, deskonpilatu, desmuntatu, desenkriptatu, atera, alokatu edo utzi, ez eta atzeranzko ingeniariatza egin ere; eta ezingo dizkiete hirugarren batzuei eman software horren azpilizentziak, baldin eta indarrean dagoen legeak ez baditu murrizketa horiek debekatzen edo egile-eskubideen titularrek ekintza horiek baimentzen ez badituzte.

## **Marka komertzialak eta baimenak**



HUAWEI, HUAWEI



Huawei Technologies Co., Ltd. enpresaren marka komertzialak edo erregistratuak dira.

Google Inc. enpresaren marka da Android™. ETSIren marka komertziala da LTE.

Bluetooth® logotipoak eta marka Bluetooth SIG, Inc. enpresarenak dira, eta Huawei Technologies Co., Ltd. enpresak lizentzia-hitzarmen baten bidez erabiltzen ditu beti. Dokumentu honetan aipatzen diren enpresa, zerbitzu, produktu eta marka komertzialen beste izen batzuk beren titularren jabetzakoak izan litezke.

## **Oharra**

Dokumentu honetan deskribatzen diren produktuaren eta osagarrien ezaugarriak aldatu egiten dira instalatutako softwarearen, ahalmenen eta sare lokalaren doikuntzen arabera. Beraz, baliteke sare-operadoreek edo sare-zerbitzuen hornitzaileek ez aktibatu izana edo mugatu izana. Hori dela eta, gerta liteke eskuliburu honetako deskribapenak guztiz bat ez etortzea eskuratutako produktuarekin edo osagarriekin.



Huaweik eskubidea du eskuliburu honetako informazioa edo zehaztapenak aldatzeko, aurrez jakinarazi gabe, eta ez du izango inolako erantzukizun komertzialik.

### **Hirugarren batzuen softwareari buruzko adierazpena**

Huawei ez da produktu honekin batera ematen diren softwarearen eta hirugarren batzuen aplikazioen jabetza intelektualaren titularra. Beraz, Huawei ez du emango inolako bermerik softwareerako eta hirugarren batzuen aplikazioetarako. Halaber, Huawei ez die laguntza-zerbitzurik emango software eta aplikazio horiek erabiltzen dituzten bezeroei, eta ez du erantzukizunik izango softwarearen eta hirugarren batzuen aplikazioen errendimenduaren gainean.

Softwarearen eta hirugarren batzuen aplikazioen zerbitzuak eten edo amaitu egin daitezke edozein unetan, eta Huawei ez du bermatzen inolako eduki edo zerbitzuren eskuragarritasunik. Hirugarren batzuen zerbitzuen hornitzaileek sarearen bidez edo Huaweiarekin zerikusirik ez duten transmisio-tresnen bidez ematen dituzte edukia eta zerbitzua. Indarrean den legeriak ezartzen duen maila gorenean, espresuki ezartzen da Huawei ez duela izango erantzukizunik hirugarren batzuen zerbitzuen hornitzaileen zerbitzuengatik edo hirugarren batzuen edukia edo zerbitzuak bukatzeagatik. Horrez gain, ez du inolako konpentsaziorik emango kasu horietan. Huawei ez du izango erantzukizunik produktu honetan instalatutako softwarearen legezkotasunaren, kalitatearen eta beste inolako alderdiren gainean, ez eta edozein modutan transmititutako hirugarren batzuen lanen gainean ere (besteak beste, testuak, irudiak, bideoak, softwarea...). Bezeroek beren gain hartuko dituzte softwarea instalatzearen edo hirugarren batzuen lanak transmititzearen edo deskargatzearen ondorio guztiak, baita softwarearen eta produktu honen arteko bateragarritasuna ere. Kode irekiko Android™ plataforman oinarrituta dago produktu hau. Huawei egin beharreko aldaketak egin ditu plataforma horretan. Beraz, baliteke produktu honek ez onartzea Android plataforma estandarrarekin bateragarriak diren funtzio guztiak edo ez izatea bateragarria hirugarren batzuen softwarearekin. Huawei ez du eskaintzen inolako bermerik edo deklaraziorik bateragarritasun horri lotuta, eta espresuki uko egiten die gai horiei lotutako erantzukizun guztiei.

### **ERANTZUKIZUNIK EZA**

ESKULIBURU HONEN EDUKIA BERE HORRETAN EMATEN DA. EZ DU INOLAKO BERMERIK. APLIKATU BEHARREKO LEGERIAK HALA ESKATZEN DUEN KASUETAN IZAN EZIK, EZ DA EMATEN INOLAKO BERMERIK, EZ ESPRESUKI, EZ INPLIZITUKI. BESTEAK BESTE, EZ DA ESKAINTZEN ESKULIBURU HONEN ZEHAZTASUNARI, FIDAGARRITASUNARI EDO EDUKIARI DAGOKION MERKATURATZE- EDO EGOKITASUN-BERMERIK HELBURU ESPEZIFIKO BATERAKO.

INDARREAN DAUDEN LEGEEK ONARTZEN DUTEN NEURRIAN, HUAWEI EZ DA ERANTZULE IZANGO INOLAZ ERE KASU HAUETAN: KALTE BEREZIAK, OHARKABEKOAK, ZEHARKAKOAK EDO SORTUTAKOAK, LORTU GABEKO IRABAZIAK, EZ ETA AUKERA KOMERTZIALEN, SARREREN, DATUEN, IZEN ONAREN, AURREIKUSITAKO AURREZKIEN GALERA ERE, KALTE HORIEK AURREIKUSTEKO MODUKOAK IZAN ALA EZ. PRODUKTU HAU ESKURATZEKO BEZEROEK ORDAINDUTAKO ZENBATEKORA MUGATUKO DA ESKULIBURU HONETAN DESKRIBATZEN DEN PRODUKTUAREN ERABILERAREN ONDORIOZKO GEHIENEZKO ERANTZUKIZUNA (MUGA HORI EZ ZAIO APLIKATUKO KALTE PERTSONALETARAKO ERANTZUKIZUNARI, INDARREAN DEN LEGERIAK DEBEKATU EGITEN BAITU MUGA HORI EZARTZEA).

### **Inportazioari eta esportazioari buruzko araudia**

Bezeroek inportazioari eta esportazioari buruz indarrean dauden legeria eta arauak bete behar dituzte, eta eskuliburu honetan aipatutako produktua softwarea eta datu teknikoak barne esportatzeko, berresportatzeko edo inportatzeko behar diren gobernu-baimen eta -lizentzia guztiak eskuratu behar dituzte.

### **Pribatutasun-politika**

Zure datu pertsonalak nola babesten ditugun hobeto ulertzeko, ikus pribatutasun-politika, hemen: <http://consumer.huawei.com/privacy-policy>.

Erreferentzia gisa soilik erabiltzekoa da eskuliburu hau. Baliteke eskuratuko produktua desberdina izatea: kolorea, tamaina, pantailaren diseinua... Eskuliburu honetako adierazpen, informazio eta gomendioek ez dute sortzen inolako bermerik, ez berariazkorik, ez inpliziturik.

Oharra: Gogoan izan Googleren zein konturekin hasi duzun saioa telefonoan, sartu zaren azkeneko aldian.

Telefonoa fabrikako balio lehenetsietara modu ez-fidagarrian berrezartzean edo microSD txartelean oinarritutako eguneraketa egitean, Googleren lapurreten aurkako mekanismoak eskatzen du nabigazio-pantailatik azkena abiarazitako saioko kontura sartzeko, identitatea baimentzeko. Identitatea baimendu ondoren bakarrik piztu ahal izango da telefonoa behar bezala.